

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Happy-aitona sortzeko beharrezko baliabideak hainbat dira, hala nola, giza baliabideak, azpiegitura, finantzaketa, komunikazioa eta prestakuntza.



Lehenik eta behin, giza baliabideak ezinbestekoak dira. Boluntarioak oso garrantzitsuak dira, eta horregatik, prestakuntza egokia eman behar zaie adinekoen zaintza eta komunikazio trebetasunak lantzeko. Gainera, profesionalen laguntza ere behar dute (adibidez, erizainak). Beste beharrezko baliabide bat izango da azpiegitura egokiak izatea. Egoitzaren espazioak erosoak, seguruak eta adinekoentzako beharrezko tresnak dituztela bermatu behar da, hala nola, bainugela egokituak eta eskailera mekanikoak. Hasierako inbertsioa egiteko beharrezko baliabideak lortzea, hala nola, egoitza prestatzeko ekipamendua, eta kostuak kudeatzea garrantzitsua izango da. Finantzaketa lortzeko, hainbat erakunde publiko eta pribatu eskaintzen dituzten diru-laguntzak daude. Erakunde publikoak, hala nola Eusko Jaurlaritza, laguntza ekonomikoa ematen dute. Horrez gain, Lanbide eta Europako Funtsek gizarte-ekimenak eta adinekoen zaintza proiektuak finantzatzen dituzte. Azkenik, Fundazioek eta Elkarte Pribatuek, adibidez, Fundación ONCE edo Fundación La Caixa, laguntzak eskaintzen dituzte gizarte ongizatearen arloan.

Bestalde, baliabideei dagokionez, komunikazioa eta prestakuntza garrantzitsuak dira. Komunikazioaren aldetik, kanpaina baten bidez zerbitzuaren garrantzia helaraztea, hau da, bezeroak erakartzeko eta zerbitzua ezagutzera emateko. Prestakuntzaren aldetik, boluntarioei eta profesionali eskaintzea, hauen gaitasunak eta esperientzia hobetzeko, zerbitzua modu egokian emateko.

Guk beste lehiakideek ez dituzten hainbat abantaila batzuk dauzkagu. Hasteko, boluntarioen motibazioa daukagu, azken finean, gizarte ekintza eta laguntza bilatzen dutelako, hau da, adineko pertsonen laguntzea eta komunitatean eragin positiboa izatea bilatzen dute.



Gainera, harreman hurbilagoa dugu bezeroarekin eta horregatik erosoagoak sentitzen dira gure egoitzan. Bestalde, langile profesional gehiago ditugu eta horrek segurtasuna ematen die familiei eta adineko pertsonen, hau guztia lotzen badugu zerbitzuaren kalitatea hobetzen du. Azkenik, gizarte konpromiso handiagoa daukagu, hau da, guk boluntario-enpresa bat izanez, beste lehiakideek ez bezala, gizartearekiko erantzukizun handiagoa erakusten dugu.